



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

PRENTSA OHARRA

Ariztondok esan dauenez, Guggenheim Fundazioari egiten jakon ordainketearen igocerearen errazoiak inflazioa eta Bilboko Museoak jasoko dituan zerbitzuen hobekuntzea dira

Bilbon, 2015eko martiaren 26an.

Josune Ariztondo Bizkaiko Foru Aldundiko Kulturako diputatu andrea Bizkaiko Batzar Nagusietako Kultura eta Euskerako batzordearen aurrean agertu da gaur, Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak New Yorkeko Salomon R. Guggenheim Foundation izenekoagaz sinatu daben hitzarmen barria azaltzeko. Batzarretako PP taldeko kideek eskaerea egin dabe, Guggenheim Bilbao Museolari eskintzen deusazan zerbitzuengaitik Estatu Batuetako fundazioari urtero emoten jakon kopuruua 2,4 milioi dolarretara igotzea eragin daben zergaitien barri jasotzeko. Josune Ariztondok esan dauenez, iraganean entregautako kopuruak ezin dira gaur egungoakaz alderatu, inflazioa dala eta, “1991tik %91 handitu da inflazioa”. Ganera, akordio horren barruan, Fundazioak zerbitzu barriak eskiniko ditu.

Josune Ariztondok zehaztu dauenez, 1997-2014 epealdirako sinatu zan aurreko hitzarmenean, Guggenheim Fundazioari 31.822.646 dolar ordaintzea erabagi zan, eta orain adostu dan zenbatekoa 48 milioi dolarrekoa da 2015-2034 epealdirako, hau da, 2,4 milioi urtean. Kulturako diputatuak adierazo dauenez, fundazioak eskintzen dituan zerbitzuak dolarretan ordaindu dira beti. Abagunearen arabera “hori batzuetan mesedegarria da eta beste batzuetan, barriz, kaltegarria”.

Arturo Aldecoak, Bizkaiko Talde Popularrak batzordean daukan bozeroaleak, akordioa “ona” dala esan dau, baina barriro errepikau dau “gehiago ordaintzen badogu, horren orde z gehiago jaso behar dogula, horreen artean benetako gertakari kulturalak izango diran erakusketak”. Ariztondok esan dau Fundazioak eskiniko dituan zerbitzu barrien artean, Bilbori lagatako artelanen aseguruen ordainketea dagoala, eta alde biek urtero barrikusiko dabela akordioa. Puntu horretan, Lorea Bilbao EAJ-PNV-ko bozeroaleak euskal erakundeek “etekinik hoberena aterako deusiela akordioari” esan dau.

Batzordeak, Salomon R. Guggenheim Foundation izenekoan Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren ordezkari moduan Jon Azua izendatzea be eztabaidatu dau. Kulturako diputatu andreak esan dauenez, Azua “pertsonea egokiena da, Guggenheim Bilbao Museoa eta Ameriketako fundazioa ondo ezagutzen ditualako”. Ganera, “Jon Azuaren presentzia ezinbestekoa” dala esan dau, New Yorkeko erakundeagaz harremanak izateko daukan gaitasuna dala eta.

Jon Azuari jagokonez, “bape positiboak ez diran haren erreferentziak daukiezala” esan dau Irune Soto EH Bilduko bozeroaleak. Batzordekideak kritikau egin dau hautagai bat proponiduteko orduan euskal kultur eragileen eretxia kontuan hartu ez izana. Horri jagokonez, EAJ-PNV-ko Lorea Bilbaok, izendapena, herritarrek modu demokratikoan aukeratu dituen Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako kargudunek egin dabela esan dau, eta Jon Azua “hautagairik onena” dala adierazo dau.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

ANTXUSTEGI ARRAIN ONTZIA

Gaurko batzordearen parte handia, horren jaube zan familiak Bilboko Itsasadarreko Itsas Museoari laga utsan eta gaur egun bertako kai lehorrean dagoan Antxustegi arrantza ontziaren egoerari buruz eztabaidatzen bete da. Asier Sanz EH Bilduko batzordekideak itsasontzi “berreskuragarria” dala, eta gaur egun daukan egoera eskasa, Museoak “alperrik galtzen itxi dauelako” etorri dala esan dau. Museoak bere pieza guztiak “zaindu egin behar dituala” gogoratu dau.

EH Bilduko batzordeko taldeak uste dau ez dala egia 1,5 milioi euro inbertitu diranik ‘Antxustegi’ itsasontzian, eta batzordeko generako kideei dokumentu bat emon deutse. Bertan itsasontzira zuzendutako gastuak zehazten dira, eta gastu horreek 312.000 eurokoak dira. Kulturako diputatu andreak argitu dauenez, EH Bilduk aitatu dituan 1,5 milioi euroetan, itsasontziaren mantentze-lanetatik haraindi doazan hainbat jarduketa batzen dira, kaia itsasontzia jasotzeko egokitzea eta itsasontzia Bilboraino ekarte, beste batzuen artean.

‘Antxustegi’ itsasontziaren egoerari jagokonez, Kulturako diputatuak, 2014ko irailean Eusko Jaurlaritzari bialdu jakon Tecnalia Korporazioak itsasontziari buruz egindako txostenera jo dau. Azterlan horretan adierazoten da itsasontzia “aurri egoeran dagoala, beste batzuentzat arriskua sortuz”, eta bere egoereak “berreskuratzeko bideragarritasun falta nabarmena” erakusten dauela. Horri jagokonez, Ariztondok esan dau itsasontzia barriztetako beharrezkoa izango litzatekela kroskoa eta ontziganea oso-osorik aldatezea eta barruko egituraren %80 barriztatzea.

EH Bilduko Asier Sanzek barriro esan dau Bilboko Itsasadarreko Itsas Museoari laga jakonean egoera ezin hobean egoala itsasontzia, eta “bere jatorrizko tipologia kontserbetan ebalako” zala interesgarria museoarentzat. Sanzek indarrez esan dau “Bilboko Itsasadarreko Itsas Museoa txatartegia dala, pena emoten dauela benetan”. Horren ostean, José Luis Uriarte bela-ontzia aitatu dau. “Oso erraz berreskuratzeko modukoa izan arren, ez da ezer egiten”. Sanzek eskaria egin dau: “museoaren kudeaketari buelta bat emon behar jako, eta bertan dagozan itsasontzien kontserbazinoa hobetu”. Horrez gain, itsasontzietan adituak diranek txosten barria egin daien eskatu dau, ‘Antxustegi’ itsasontzia berreskuratu daitekean ala ez jakiteko.

Beste alde batetik, Kultura eta Euskerako batzordeak ez dau onartu EH Bilduk egin dauen proposamen bat, emakumeak kirolean daukan partaidetzea bultzatzera zuzentzen dituan diru-laguntzen deialdietan Aldundiak “lehentasun berezia emon deien zuzendaritza taldeak guztiz emakumez osatuta dituen” kirol taldeei, eta talde horreek “puntuazino altuenak jaso daiezan”. Arauz besteko proposamena ez da onartu, Euzko Abertzaleak eta Bizkaiko Talde Popularrak kontrako botoa emon dabelako. EH Bilduko hiru batzordekideek eta Socialistas Vascos taldeko biek aldeko botoa emon dabe.

Aldeko botoa emon dauen arren, Dulcina Pereiro PSE-ko batzordekideak zehaztu dau diru-laguntzak “klubek egiten daben jarduera” kontuan izanda emon behar dirala, batez be, baina proposamenaren alde agertu da, emakumeak kirolean dauen partaidetzea bultzatuko daben neurrien alde dagoalako. EAJ-PNV eta PP bat etorri dira esatean ez dagozala ados “zuzendaritza taldeak guztiz emakumez osatuta egoteari buruzko” aitamen horregaz, eta, arlo guztietan, erantzukizuneko postuetako ordezkartzea gizonen eta emakumeen artean proportzinozkoa izatearen alde agertu dira. Batzordeko Euzko Abertzaleak taldeak proposamena “legearen



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

kontrakoa dala” esan dau, “legeak sexuen ordezkariak orekatuaren aldeko apustua egiten dauelako”.

ZUGAZTIETAKO ELLACURIA ETXEA

Batzordeak PP-k aurkeztu dauen Arauz besteko beste proposamen bat onartu dau, Batzar Nagusiek agindua emon deioen Bizkaiko Foru Aldundiari, Zugaztietako Moltso Monumentalean (Trapaga) dagoan eta une honetan oso kontserbazino egoera txarra daukan ‘Ellacuria Etxea’ etorkizunean eskuratzeko aukerea aztertu daian. PP-ko Ignacio Aldecoa adierazo dauenez, helburua eraikin horrek –Bizkaiko lehenengo behargin-ekonomatoa izan zanak– gizarte eta kultura arloko espazioak eta zerbitzuak jasotea da, herritar guztien mesederako.

Ana Esther Furundarena EAJ-PNV-ko batzordekideak gogoratu dauenez, eraikinaren jaubetza zehaztu barik dago, eta une honetan prozesu judiziala dago gai horren inguruan. Bere eretziz, komenigarria izango litzateke gai hori jaubetza argitu eta gero aztertzea. Arturo Aldecoa, barriz, azterlana “orain” egitearen alde agertu da, kasua epaitegietan argitzen danean jaubeak eraikina beste edozein erabilerara bideratu daikealako. Proposamena onartu egin da, talde guztien aldeko botoagaz.

Zugaztietatik urten barik, EH Bilduren arau besteko beste proposamen bat be onartu dau batzordeak, Batzar Nagusiek eskaerea egin deioen Aldundiari, Trapagako auzo horretako Aterpetxeko kirol kantxaren argiztapena bermatzeko hartu beharreko neurriak hartu daizan, aterpetxearen jaubea Aldundia dala kontuan izanda. Proposamena, kantxa herriko biztanleek be erabilten daben arren, argiztapena aterpetxetik bertatik kontrolatan dalako sortu da. Holan, aterpetxea itxita dagoan egunetan ezinezkoa da kirol barruti horretan argirik izatea.

Talde guztiek proposamenaren aldeko botoa emon dabe, PP-k izan ezik, bere eretziz Trapagako Udala izan behar dalako kantxa horretan beti argia egotea Aldundiari eskatu behar deusana.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Ariztondo afirma que la subida del pago anual a la Fundación Guggenheim se debe al efecto de la inflación y la mejora de los servicios que recibirá el museo de Bilbao

En Bilbao, a 26 de marzo de 2015.

La diputada de Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia, Josune Ariztondo, ha comparecido hoy, a petición del Grupo Popular Vizcaíno, en la comisión de Cultura y Euskera de las Juntas Generales de Bizkaia para explicar el nuevo convenio firmado por la Diputación y el Gobierno Vasco con la Salomon R. Guggenheim Foundation de Nueva York. Los junteros del PP han solicitado conocer los motivos que han llevado a elevar hasta 2,4 millones de dólares la cuantía que se entrega anualmente a la fundación estadounidense por los servicios de presta al Museo Guggenheim Bilbao. Josune Ariztondo ha señalado que las cantidades entregadas en el pasado no son comparables con las actuales por efecto de la inflación, “que ha aumentado un 91% desde el año 1991”. Además, el acuerdo incluye la prestación de nuevos servicios por parte de la Fundación.

Josune Ariztondo ha detallado que el anterior convenio, para el período 1997-2014, se estableció el pago a la Fundación Guggenheim de 31.822.646 dólares, y que la cuantía acordada ahora es de 48 millones de dólares para el período 2015-2034, a razón de 2,4 millones anuales. La diputada de Cultura ha indicado que los servicios que presta la fundación siempre se han pagado en dólares, una cuestión que, según la coyuntura, “a veces es favorable y a veces desfavorable”.

Arturo Aldecoa, portavoz del Grupo Popular Vizcaíno en la comisión, ha calificado el acuerdo de “bueno”, pero ha insistido en que “si pagamos más, debemos recibir a cambio más y mejores exposiciones que sean verdaderos hitos culturales”. Ariztondo ha señalado que entre los nuevos servicios que prestará la Fundación se encuentra el pago de los seguros de las obras cedidas a Bilbao y que el acuerdo se revisará anualmente entre las partes. En este punto, la portavoz del PNV Lorea Bilbao ha asegurado que las instituciones vascas “sacarán el mejor rendimiento al acuerdo”.

La Comisión ha debatido la designación de Jon Azua como representante de la Diputación Foral de Bizkaia y del Gobierno Vasco ante la Salomon R. Guggenheim Foundation. La diputada de Cultura ha definido a Azua como “la persona más adecuada y con un conocimiento profundo de Guggenheim Bilbao Museoa y de la fundación americana”. Igualmente, ha apuntado que “la presencia de Jon Azua es clave” por su capacidad de relación con la entidad neoyorquina.

En relación con Jon Azua, la portavoz del Grupo de EH Bildu, Irune Soto ha afirmado que tienen “referencias tuyas que no son nada positivas”. La juntera ha echado en falta que no se haya contado con la opinión de los agentes culturales vascos a la hora de proponer un candidato. En este sentido, Lorea Bilbao, del PNV, ha señalado que la designación está hecha por los cargos de la Diputación y del Gobierno Vasco que han sido elegidos democráticamente por la ciudadanía, y ha calificado de “candidato idóneo” a Jon Azua.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PESQUERO ANTXUSTEGI

Gran parte de la Comisión de hoy se ha dedicado al estado del buque pesquero ‘Antxustegi’, que fue cedido por la familia propietaria al Museo Marítimo Ría de Bilbao y en cuyo dique seco se encuentra actualmente. El juntero de EH Bildu Asier Sanz ha señalado que se trata de un barco ‘recuperable’ y que su actual estado de deterioro se debe a que el Museo “lo ha dejado perder” y ha recordado que el Museo “debe cuidar” todas sus piezas.

El grupo juntero de EH Bildu considera que no es cierto que se hayan invertido 1,5 millones de euros en el ‘Antxustegi’ y ha entregado al resto de miembros de la comisión un documento en el que se detallaban los gastos destinados al barco y cuyo montante asciende a 312.000 euros. La diputada de Cultura ha aclarado que los 1,5 millones de euros a los que aludía EH Bildu pertenecen a un conjunto de actuaciones que van más allá del mantenimiento del barco, como fue la adecuación del dique para albergar el barco y su traslado hasta Bilbao, entre otros gastos.

En relación con el estado del ‘Antxustegi’, la diputada de Cultura ha recurrido al informe de la Corporación Tecnalia sobre el buque, remitido al Gobierno Vasco en septiembre de 2014. En este estudio se señala que el barco se encuentra en estado de “ruina con peligro a terceros” y en situación de “clara falta de viabilidad de recuperación”. En este aspecto, Ariztondo ha señalado que para restaurar el barco sería preciso sustituir el cien por cien del casco y la cubierta, y el 80% de su estructura interna.

Asier Sanz, de EH Bildu, ha insistido en que el barco estaba en perfectas condiciones de navegar cuando fue donado al Museo Marítimo Ría de Bilbao y que precisamente resultaba interesante al museo porque “conservaba su tipología original”. Sanz ha enfatizado que “el Museo Marítimo Ría de Bilbao es una chatarrería, realmente da pena”. Seguidamente aludió al estado del velero de José Luis Uriarte, “que puede ser fácilmente recuperable y no se hace”. Sanz pidió que “habría que dar una vuelta a la gestión del museo y mejorar la conservación de sus barcos”, así como hacer un nuevo informe por expertos en barcos para determinar si se puede recuperar el ‘Antxustegi’.

Por otro lado, la Comisión de Cultura y Euskera ha rechazado en votación una propuesta de EH Bildu para que las Juntas Generales instasen a la Diputación para que “priorice de manera especial”, dentro de sus convocatorias de subvenciones destinadas al fomento de la participación de la mujer en el deporte, a los clubes deportivos “cuyos órganos de dirección estén compuestos en su totalidad por mujeres” y que se les otorgue “las más altas puntuaciones.” La proposición no de norma ha sido rechazada con los votos en contra de Nacionalistas Vascos y Grupo Popular Vizcaíno, mientras que los tres junteros de EH Bildu y los dos de Socialistas Vascos han votado a favor.

Pese al voto favorable, la juntera del PSE Dulcina Pereiro ha matizado que las subvenciones deben otorgarse principalmente “por la actividad de hagan los clubes”, pero apoyaban la proposición por mostrarse favorables a medidas que impulsen la participación de la mujer en el deporte. PNV y PP han coincidido en señalar que no estaban de acuerdo con la referencia a que “los órganos de dirección estén compuestos en su totalidad por mujeres” y han apostado por que la representación en puestos de responsabilidad sea proporcional entre hombres y mujeres en todos los ámbitos. El grupo junteros Nacionalistas Vascos ha llegado a decir que la propuesta “contraviene la ley, que apuesta por la representación equilibrada de sexos”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

CASA ELLACURIA DE LA ARBOLEDA

La Comisión sí ha aprobado una proposición no de norma presentada por el PP para que las Juntas Generales insten a la Diputación Foral de Bizkaia a que estudie la futura adquisición de la ‘Casa Ellacuría’, ubicada en el Conjunto Monumental de La Arboleda (Trapaga) y que se encuentra en claro estado de deterioro. Según ha señalado Ignacio Aldecoa, del PP, el objetivo es que el inmueble –primer economato obrero de Bizkaia- acoja espacios y servicios de carácter social y cultural para los vecinos y la ciudadanía en general.

La juntera del PNV, Ana Esther Furundarena, ha recordado que la propiedad del inmueble está sin determinar y se encuentra en proceso judicial, y ha considerado que sería más conveniente estudiar el caso una vez aclarada la propiedad. Por el contrario, Arturo Aldecoa ha apostado por hacer el estudio “ahora”, ya que cuando se resuelva el caso en los tribunales, el propietario podría dedicar el inmueble a cualquier otro uso. La proposición se ha aprobado con el apoyo de todos los grupos.

Sin salir de La Arboleda, la Comisión ha aprobado una proposición no de norma de EH Bildu para que las Juntas Generales insten a la Diputación a que adopte las medidas necesarias para garantizar la iluminación de la cancha deportiva del Albergue del citado barrio de Trapagaran, propiedad de la Diputación. Esta propuesta ha surgido porque la cancha también es utilizada por los vecinos de la localidad, pero la iluminación se controla desde el propio albergue, de tal manera que los días en que este se encuentra cerrado no hay posibilidad de contar con luz en el recinto deportivo.

Todos los grupos han votado a favor de esta proposición, excepto el PP, que considera que debe ser el Ayuntamiento de Trapagaran el que solicite a la Diputación que haya de forma permanente luz en la cancha.